



MIGRAZIO-
RAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA

PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN

EAE-ko tokiko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Migrazioaren eta Asiloaren EAeko Foroko Harrera eta Bizikidetzaren Batzordeak berrikusitako dokumentua

1. bertsioa, 2023ko iraila

Aurkibidea

1. Testuinguruan jartzea 5

2. Kontzeptuak argitzen 6

- 2.1. Harreraren definizioa 6
- 2.2. Harrera integrala 9

3. Tokiko harrera-politikak diseinatzea 9

- 3.1. Ikuspegiak eta ikuspuntuak 10
- 3.2. Harrera politika sistemiko eta integral baten barruan 14
- 3.3. Harreraren dimentsioak eta eremuak 15
- 3.4. Erakundearteko koordinazioa eta lankidetzak publiko-soziala 16
- 3.5. Zerbitzu espezifikoaren arteko oreka eta zerbitzu orokorren egokitzapena 17
- 3.6. Kulturarteko gaitasunak harreran 18
- 3.7. Euskararen eta gaztelaniaren zeregina harreran 20

4. Esperientziak eta joerak harrera-politiketan 22

5. Toki-erakundearen tresnak 23

- 5.1. Tresna motak 23
- 5.2. Tokiko harrera-protokoloak 24
- 5.3. Harrera-prestazio teknikoak eta orientazio-zerbitzua 26
- 5.4. Beste programa osagarri garrantzitsu batzuk: gizarte-mentoretza 27

6. Harrerarako tokiko baliabideak eta zerbitzu posibleak 28

- 6.1. Administrazio- eta lege-dimentsioa 28
- 6.2. Partaidetza-dimentsioa 28
- 6.3. Kidetasun-dimentsioa 29

7. Tokiko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak 31

1. Testuinguruan jartzea

Ziur asko, lurralde batera iristen diren pertsonen harreraren historia gizakiaren beraren migrazioen bezain zaharra da, hasiera-hasieratik egon baita mugimenduan. Horrela, harreraren nozioak tradizio filosofiko eta erlijioso desberdinen eragina jaso du, eta garai historiko eta eremu geografiko desberdinetako praktika kulturaletan ageri da. Ildo horretan, gure egungo testuinguruan, berritasuna ez da kontzeptua bera, zeina, gainera, gizarte- eta komunitate-eragileek askotan erabili baitute, baizik eta harreraren erantzukizun publikoa onartzea. Eta, bereziki, lurraldean ezartzen diren migratzaileei zuzendutako harrera-politiken hedapena.

Hori koherentea da nazioarteko hainbat erreferentziarekin, hala nola 2030 Agendarekin¹ edo Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularerako Mundu Itunarekin² eta, aipatutako itunaren aurretik, Errefuxiatuentzako eta Migratzaileentzako New Yorkeko Adierazpenarekin³. Izan ere, berariaz planteatzen du konpromiso honen garrantzia: «gure herrialdeetara iristen diren pertsona guztiei, bereziki mugimendu handien parte direnei, izan migratzaile edo errefuxiatu, harrera azkarra, errespetuzkoa, gizatiarra eta duina ematea, pertsonak ardatz dituen eta genero-gaiak kontuan hartuko dituen. Halaber, haien giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak erabat errespetatzen eta babesten direla bermatuko dugu».

Bestalde, 4/2000 Lege Organikoak, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoak, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoak⁴, honako hau ezartzen du (2.ter artikulua): «Botere publikoek atzerritarren erabateko gizarteratzea sustatuko dute (...) hainbat identitate eta kultura elkarrekin bizitzeko esparru batean».

1 Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25ean onartutako ebazpena. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/TI6V1>

2 Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2018ko abenduaren 19an onartutako ebazpena. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/NJ17m>

3 Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2016ko irailaren 19an onartutako ebazpena. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/LYGSO>

4 Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/c1U5T>

Gure herrialdean, Migrazioako Euskal Itun Sozialak⁵ —EAEko erakunde asko eta eragile sozial, politiko eta sindikal ugari atxiki zaizkio— konpromiso hauek zehazten ditu: «harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere»; «nazioarteko babes-eskatzailen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea»; «maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren sustatzea, eta «elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarrizketa eta lankidetzaren iraunkorreko mekanismoak ezarriz, migratzaileen erakundeek harreraren eta integrazioaren duten zeregina sustatuz».

Azkenik, erakundearen arteko lankidetzaren ildo horretan bertan, eta lege-ikuspegi lotesle batetik, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legeak⁶ (aurrerantzean, ETEL) 17. artikuluko 35. zenbakian adierazten du udalerrien eskumena dela «immigratio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerriartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrira eta erakunde autonomikoekin lankidetzan».

Esandakotik ondoriozta dezakegu atzerriar jatorriko pertsonen harrera udalerriek sustatu behar dituzten tokiko politiken parte dela, integrazioaren edo gizarteratzearen aldeko ekintza multzo zabalago horren barruan. Eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan egin behar dutela, ahal dela gizarte-erakunde espezializatuekin, espezializatu gabeekin eta migratzaileen kolektiboarekin lankidetzan. Harrera hori eskubide-ikuspegi batetik abiatu behar da, pertsonak erdigunean jarri, eta genero-ikuspegia eta kulturartekotasuna txertatuko dituen ikuspegi batetik, eta EAEn ezartzen diren migratzaileen baldintza- eta eskubide-baldintasuna helburu duten neurri eta zerbitzuen multzo bat zehaztu behar da.

2. Kontzeptuak argitzen

2.1. Harreraren definizioa

Kontzeptu horren definizio eta hurbilketa desberdinak daude. Gure kasuan, Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroaren⁷ batzorde homonimoaren proposamena hartu dugu erreferentziatzat. Alde horretatik, harrera behin betiko bertakotu litezkeen migratzaileen integrazio-/gizarteratze-prozesuaren hasierako fasetzat hartzen da, bai eta nazioarteko babesaren eskatzaileena edo errefuxiatu eta aberrigabeena ere. Horrela, migratzaileen integrazioa zer den argitu beharko dugu lehenik eta behin.

Integrazioa prozesu bat da, eta herritarrei berdintasun-baldintzetan bermatu behar die alderdi hauetarako sarbidea: eskubideak eta betebeharrak, lan-merkatua, ondasunak eta zerbitzuak. Integrazio-prozesuari berari dagokionez, interesgarria da, halaber, Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen⁸ ekarpena:

Migratzaileak, banaka zein taldean, gizarte batean onartzeko prozesua [da]... [Integrazioa] migratzaileen eta bizi diren gizartearen arteko bi norabideko egokitzapen-prozesu bati dagokio [...] Integrazioaren erantzukizuna,

5 Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/4ThGj>

6 Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/zlL44>

7 <https://labur.eus/rYjqq>

8 Ikusi Migrazioari buruzko glosarioaren edizioak (MNE, 2011). Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/hBdhO>

etorkinena ez ezik, gobernu hartzailearena, erakundeena eta komunitateena ere bada.

Zenbait dokumentu ofizialetan⁹ aipatu den definizio hori bat dator Blanca Garcés¹⁰, Rinus Penninx eta Marco Martiniello¹¹ egileenekin.

Esparru horretatik abiatuta, eta Migrazioaren eta Asiloaren EAeko Foroaren lan-ildoari jarraikiz, honako hau ondoriozta genezake:

Harrera da komunitate batera iristen diren pertsonen laguntzeko prozesua, haien herritartasuna materialki aitortua izateaz gain, komunitate horri datzekion eskubide eta betebeharren bidez modu eraginkorren gauza dadin. Laguntza hori formala edo ez-formala izan daiteke, planifikatua edo espontaneo, eta erakundeetako, gizarteko edo auzoko eragileek egina.

Harreraren planifikatutako zatiari dagokionez, hau da, aipatutako eragileek helburu horrekin kontzienteki egitea erabakitzen duten ekintzei dagokienez, harrera-politikaren definiziora hurbil gaitzake:

Oro har, harrera[-politika] deritzogu gizarte batek etorkinen eta nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen edo errefuxiatuen etorreraren aurrean abian jartzen dituen jarduketan, baliabideen, jarreraren eta diskurtsoen multzoa (informaziokoa, prestakuntzakoa eta laguntzakoa). Horrela, komunitatean eta lurraldean zertzen da harrera, erakundeen, gizarte-erakundeen eta herritarren bidez.

Dokumentu honen ondorioetarako, nabarmendu behar da erakundeek gidatu behar dutela harrera nahitaez, eta politika publiko bihurtu behar dela, gure lurraldera iristen den pertsona orok edozein herritan harrera-zerbitzuak berdin jaso ahal izatea modu integrean bermatzeko.

Jarraian, orain arte aipatutako hainbat elementu aztertuko ditugu modu zehatzagoan, gure ustez garrantzitsuak baitira harreraren arloko toki-politikei buruz hausnartzeko orduan:

- *Hasierako fasea da.* Beste jatorri bateko pertsona bat gizarte batean integratzeko edo gizarteratzeko prozesu konplexuaren hasierako zatia da harrera. Oro har, gutxi gorabehera bi urteko iraupena ezarri ohi da. Epe hori orientagarria da, baina kontuan hartu behar da ez dela prozesu lineala eta atzerapausoak egon daitezkeela; izan ere, alderdik askok baldintzatzen dute, adibidez, administrazio-egoerak, familiaren egoera sozioekonomikoak, elkarteak edo bestelako gorabehera pertsonalek.

Horren harira, migrazio-politika publikoen ikuspegitik, bi egitate dira aipatzekoak: «iritsi baino lehen has daiteke harrera» eta «pertsonak lurralde bakoitzean dauden zerbitzu publiko orokorretan parte hartu arte jarraitzen

9 Ebazpena, 2021eko abuztuaren 3koa, Nazioarteko Babes eta Arreta Humanitarioko Programen Zuzendaritza Nagusiarena; honen bidez, dirulaguntzen deialdia egiten da atzeritartasunaren arloan interes orokorreko jarduketak garatzeko, migratzaileen giza eskubideak defendatzeko eta bizikidetzeta eta gizarte-kohezioa bultzatzeko. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/DkgPO>

10 Euskal Autonomia Erkidegoko Immigrazioari eta Integrazioari buruzko XII. Jardunaldietako hitzaldia. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/kC4On> 13:00 minututik aurrera.

11 Ikus «Procesos de integración y políticas (locales): estado de la cuestión y algunas enseñanzas». Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/r2YRP>

du»¹². Beraz, harrera hasierako orientazioa da, eta integrazioa, berriz, hamarkadak irauten dituen prozesua. Logikaz, harrera ona egiten zaion pertsona ongi integratuko da.

- *Integrazioaren edo gizarteratzearen horizontea*¹³. Harrera ona eginez gero, errazagoa da migratuak gizarteratzeko prozesu hobek izatea, hau da, errazagoa da migratua bertakotzeko helburua lortzea. Garrantzitsua da nabarmentzea lotura estua duela herritartasunaren kontzeptioarekin, alegia, eskubide eta betebeharrak berberak dituzten subjektuak direla jabetzearekin. Alderdi hori aurrerago garatuko dugu.
- *Batez ere, alderdi materialak ditu*. Definizioan jarduketak eta baliabideak aipatzen dira. Batzuetan, hainbat udalerrri erreferente handitan (Bartzelona¹⁴) eta beste eskala bat duten eta hurbilago dauden beste batzuetan (Getxo¹⁵), «harrera-bulegoak» dira, baina hori ez da alternatiba bakarra, ez eta nahitaz nagusia ere. Egokitasuna, hala badagokio, modu berezian ebaluatu beharko da, hainbat alderdiren arabera (premia horren existentzia, aurretiko ibilbidea, beste baliabide batzuk egotea, udalaren baliabideekiko dimentsioa, etab.). Nolanahi ere, ezinbestekoa da toki-erakundeek sustatutako mota desberdinetako jarduketa multzo bat egotea (batzuetan, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta), gizarte-erakundeekin lankidetzan.
- *Alderdi immaterialak ditu*. Gizarte abegikorra da herritar berrien etorreraren aldeko jarrera eta diskurtso positiboak dituen. EAeko gizartearen kasuan, migrazioak eragin ekonomiko¹⁶ eta demografiko¹⁷ positiboa duela aitortzen da, baita agindu humanista bat dela ere, ikuspegi soziokulturaletik aberasten gaituena.

Kontuan izan behar da, gainera, harrera- eta integrazio-politika onek, iristen direnei ez ezik, «bertakoei» ere egiten dietela mesede. Hortaz, baterako onura dira EAeko gizartearentzat, eta funtsezkoak kohesioa bermatzeko.

- *Tokikooinarri du*. ETELe kudalerrien eskumenari buruz adierazitakoarekin bat etorrita, baina, batez ere, azken hamarkadetakoa esperientziari erreparatuta¹⁸, harrera-eremu nagusia tokikoa da. Komeni da adieraztea tokikoa ez dela bakarrik lurralde-alderdira mugatzen administrazioaren ikuspegitik, nahiz eta alderdi hori funtsezkoa izan, eta, horrez gain, tokikoa ez dela soilik udal-eskumenekoa. Hala, ulertzen da ingurune fisikoari egiten diola erreferentzia, baina baita erlazionalari (interakzio pertsonal eta sozialen unibertsoa) eta sinbolikoari ere, egokia baita kidetasun- edo identifikazio-prozesuetarako.

12 Ikus *Repensar la acogida desde la perspectiva intercultural*, RECIk argitaratua (2020). Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/9Pblo>

13 Carlos Giménez Romerok, *La cuestión migratoria hoy: conversando sobre argumentos y políticas* lanean, gizarteratzea terminoa erabiltzea proposatu du. «Integrazioa» ere baliozkoa izan daiteke; ETELen hori erabiltzen da, adibidez. Baina interpretazio okerrak eragin ditzake, ez bada argi uzten ez dakarrela inolako asimilazionismorik baina bai gizarte-kohesioa. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/8ys1q>

14 Bartzelonako Udalak nazioarteko mugikortasunean espezializatutako udal-zerbitzu bat du 1989az geroztik, SAIER: <https://labur.eus/wNi39>

15 Getxoko Udalak zerbitzu publiko bat ezarri du, Migrazioen Harrera eta Arretarako Bulegoa: <https://labur.eus/ZX2Gr>

16 Ikus *Atzerritar jatorriko pertsonen ekarpen ekonomikoa EAEn BPGd-ren bidez* (2018). Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/xeVZG>

17 Ikus *Biztanleriaren proiektzioak, 2020. Emaitzak aztertzea*. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/f2V5P>

18 Horri dagokionez, garrantzitsuak dira kulturarteko bizikidetzaren alde lan egiten duten hirien sareak. Espainian: <https://www.ciudadesinterculturales.com/> European, Intercultural cities (ICC) programa dago: <https://www.coe.int/en/web/interculturalcities>

- *Komunitatean gertatzen da.* Baieztapen horrek esan nahi du harremanetan eta komunitatean jarri behar dela arreta, bai harreraren hartzaile gisa, bai harreraren subjektu gisa. Hau da, pertsonengan oinarritutako arreta ez dadila gaizki ulertu; ez da loturarik gabeko gizabanakoekin edo horien artean egiten den lana. Funtsezkoa da argitzea komunitateari¹⁹ buruz ari garenean, kultura-aniztasunaren testuinguruan ari bagara ere, ez dela termino kulturalistetan interpretatu behar. Komunitatea, kasu honetan, harrera-prozesuan parte hartzen duten eragile instituzional, tekniko, herritar eta sozialen multzoa da. Eragile horien artean, berariaz eta modu nabarmenean hartuko dira kontuan ezaugarri berdineko (sinesmenak, jatorria, minorizazioa, etab.) migratuek osatzen dituzten talde formal eta informalak.
- *Hainbat eragilek hartzen dute esku.* Agerian geratu denez, harreraren pertsonekin eta lurralde-eremu berean lan egiten duten hainbat eragile instituzional eta sozialek parte hartzen dute. Ildo beretik, funtsezkoa da erakundearteko koordinazioaren eta lankidetzak publiko-sozialaren beharra azpimarratzea²⁰. Nolanahi ere, lankidetzak eredu horrek ezin du lausotu edo desbideratu eremu horretako erantzukizun publikoaren gaineko arreta. Horregatik, erantzukizun publikoa gailendu arren, erakundearteko maila guztiekiko eta gizarte-eragileekiko lankidetzak iraunkorra izan behar du.

2.2. Harrera integrala

Beste testuinguru batzuetan, integraltasunak esanahi eta ñabardura desberdinak har ditzake. Hala ere, tokiko eremuan eta migratzaileei dagokienez, integraltasun hori integrazioaren edo gizarteratzearen lehen fasean migratzaileen premia guztiei erantzuteko asmo gisa hartzea proposatzen dugu (6. apartatuan garatzen dira premia horiek). Aipatu dugun bezala, premia horiek alderdi materialekin eta immaterialekin dute zerikusia, hainbat dimentsiotan, hala nola administrazioarekin, eskubide eta zerbitzu publikoetarako irispidearekin, eta gizartearen parte-hartzearekin.

Gainera, aintzat izan behar da integraltasunak emakume edo haur izateagatik edo zaurgarritasun-egoeran dauden kolektibo jakin batzuetako kide izateagatik gertatzen diren egoera jakin batzuen berezitasunei erantzun beharko diela. Hori genero-ikuspegi eta ikuspegi interseksionala zehaztean datza.

3. Tokiko harrera-politikak diseinatzea

Atal honetan, tokiko harrera-politikak definitzerakoan zein alderdi diren garrantzitsuak identifikatzen saiatuko gara. Horretarako, hainbat gai jorratuko ditugu; adibidez, haien ikuspegia hainbat ikuspuntutatik, zein dimentsio eta esparrutan eragin dezaketen edo eragin beharko luketen, migratuentzako baliabide eta zerbitzu espezifikoak sortzeko behararen eta izaera orokorrekoen egokitzapenaren arteko oreka edo kulturarteko gaitasunen garapenaren garrantzia.

19 Erreferentziatzen hartu dugu Marco Marchionik *Conceptos alrededor de la intervención comunitaria* argitalpean egindako ekarpena. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/JMvfk>

20 Ildo horretan, garrantzitsua da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legea aipatzea, lankidetzak publiko-soziala antolatzen duen lege-esparrua baita. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/wdaox>

Ikuspegi horiek koherenteak dira nazioarteko erakundeek (Nazio Batuek edo ELGAk²¹) eta erakunde akademikoek²² egiten dituzten gomendioekin.

3.1. Ikuspegiak eta ikuspuntuak

Harrera-politikak hainbat ikuspegi kontuan hartuta diseinatu, inplementatu eta ebaluatu behar dira. Lehen aipatu dugun harreraren kontzeptuari erreparatuta, hauek iruditzen zaizkigu garrantzitsuenak eta koherenteenak:

- A. *Eskubideen ikuspegia*²³. Kontzeptu-esparru horrek giza eskubideen printzipioak, arauak eta estandarrak txertatzen ditu politika, programa eta zerbitzu publikoetan. Horretarako, eskubideen titularrak eta eskubide horien egikaritzea sustatu behar dutenak identifikatzen ditu, eskubide horien titularren gaitasuna indartzeko (horiek aldarrikatze aldera), bai eta eskari horiek asetzeko gaitasuna indartzeko ere horiei erantzuteko ardura duten erakundeen aldetik.

Bereziki, gure ustez, harrera-politikak definitzeko, ikuspegi horrek arreta berezia jarri behar die, besteak beste, hiru alderdi zehatzi:

A.1. Herritarrak

Alderdi tekniko formalean ez ezik, alderdi sozialean ere interpretatzen dugu²⁴. Alegia, lurralde jakin batean bizi diren pertsona guztiei eskubide zibil, sozial eta politiko osoak bermatzeko gaitasuna. Herritartasuna nazionalitatean ez ainguratzea da gakoa —jaiotzagatik zein naturalizazioagatik—, eta agerian jartzea proposamen liberala ez dela gai sustrai etnokulturalak gainditzeko, herritartasunaren nozioa bere sustraira itzuli eta bizileku-egoeran finka dadin.

Ildo beretik, Miguel Pajaresek²⁵ migratuen eskubideak gainerako biztanleenekin modu legezko eta eraginkorrean parekatzeko prozesu gisa proposatu du herritarren integrazioaren kontzeptua, bai eta gizarteak eskaintzen dituen ondasun, zerbitzu eta partaidetza-bide guztiak aukeraberdintasunean eta tratu-berdintasunean eskuratzeko prozesu gisa ere.

Horrela, bada, harrera-politikek modu aktiboan sustatu behar dute iristen diren pertsonak bizilagun berrizat hartzea; pertsona horiek herritar guztien eskubideak eta betebeharrak izatea izan behar dugu helburu, eta desberdintasunerako eskubidea errespetatu behar dugu (kultura-praktikak, sinesmenak, hizkuntzak...), pareko izanik biziz.

Garrantzitsua da adieraztea estatu-mailako oztopoak daudela, toki-erakundeekin eta gizarte-eragileekin zerikusirik ez dutenak, eta oztopo horiek eragotzi egiten dutela eskubide- eta betebeharr-berdintasun hori

21 Ikus *Local inclusión of migrants and refugees*. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/RkSV9>

22 Erreferentzia bat aipatzearen, CIDOBen *Inmigración y Gobierno local: experiencias y retos*. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/W43QH>

23 Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia politika publikoetan aplikatzeko lehen hurbilketa bat egiteko, interresgarria izan daiteke argitalpen hau: <https://labur.eus/PJZjS>

24 Ikus Javier de Lucasen *La inmigración como res pública*. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/SMb6E>

25 Ikus *La perspectiva de la integración ciudadana*. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/ck9Pz>

benetakoa eta eraginkorra izatea. Zehazki, 4/2000 Lege Organikoa, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa²⁶. Hala eta guztiz, horrek ez ditu harrerako toki-politikak zentzugabetzen, baizik eta are garrantzitsuago bihurtzen²⁷.

A.2. Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza

Eusko Jaurlaritzak Eraberean Sarearen esparruan argitaratu zuen gai horri buruzko oinarritzko gida²⁸. Horren arabera, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, zuzenbideko estatu demokratiko baten oinarritzko printzipioa izateaz gain, justizian eta oinarritzko eskubideetan nahitaez bermatu beharreko printzipioa da. Printzipio hori egoki antolatzeak mesede egiten dio kohesio sozialari, eta arlo publikoa areago zilegitzen du.

Harrera-politikak neurri materialen, sozialen eta politikoen multzo bat dira, eta horien helburua da iritsi berri diren pertsonen aukera-berdintasuna modu eraginkorrean eta ahalik eta lasterren bermatzea, bertakoen ondasun sozial edo ekonomiko berdinak eskura ditzaten.

Horren haritik, ezin da inola ere alde batera utzi politika horiek gure gizartean oso finkatuta dauden diskriminazio historiko eta estrukturalako sistemei —arrazismoa eta xenofobia— aurre egiten dieten pertsoneri zuzenduta daudela. Hori dela eta, ezinbestekoa da horiek neutralizatuko dituzten diskurtsoak eta jarrerak sortzen lan egitea, baita horien ondorio negatiboak lehengoratuko dituzten eta aukera- eta posizio-berdintasuna sortuko duten ekintzak, baliabideak eta zerbitzuak sortzen ere.

A.3. Zerbitzuak baldintza berdinetan eskuratzea

Aurreko paragrafoetan adierazitako herritar batek eskubideak baliatzea, besteakbeste, baina osomoduberezian, zerbitzu publikoetarako irispidean zehazten da. Kidetza edo aitortza alderdi immaterialetatik haratago, funtsezkoa da harrera-politikak herritar berriek zerbitzu publikoak eskuratu eta erabil ditzaten bideratzea, baldintza berdinetan gainera. Horrek, aurrerago ikusiko dugun bezala, hainbat ondorio ditu: horien existentziari, funtzionamenduari eta betekizunei buruzko informazioa ematea, errealitate espezifikoerantz erantzun egoki dieten zerbitzu berriak sortzea, eta lehendik dauden zerbitzu publiko arruntak kulturartekotasunari begira egokitzea/moldatzea.

B. Kulturarteko ikuspegia. Eusko Jaurlaritzak egindako beste dokumentu batzuetan, esaterako, Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren

26 Id. 4.–

27 Imanol Zuberok *Humanidad, ciudadanía y refugio: nada humano nos es ajeno* lanean honela azaltzen du: «Hannah Arendten formulazio ezagunean, giza eskubideetan funtsezkoena da eskubideak izateko eskubidea, “antolatutako komunitateren bateko kide izateko eskubide” gisa ulertuta (Arendt, 2004:375). Kontrara, mundu estatu-zentriko batean (Benhabib, 2005), giza eskubideez benetan baliatu ahal izatea nazio bateko kide izatearen mende jartzen den mundu batean, herrialde propiotik kanporatzen diren desplazatuak herritartasun-eskubideen eten-egoeran geratzen dira, eta egoera hori harrera- eta babes-politika egokiaren bidez soilik has daiteke berreraikitzen». Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/ub0Nm>

28 Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/IXqe6>

Kulturarteko VI. Planean²⁹, ikuspegi horrek immigrazioa eta kultura-aniztasuna modu positibo eta inklusiboan kudeatzea dakarrela ulertzen da, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan, kultura-desberdintasunaren aintzatespenean eta elkarreragin positiboan oinarrituta.

Aniztasuna kontuan hartzen duen kudeaketari ekiteko, desberdintasunak aitortu eta errespetatu behar dira, eta, era berean, elkarreragina, elkarrizketa kritikoa eta elkarrekintza bilatu oinarritzko balio partekatu batzuetan oinarrituta, besteak beste, giza eskubideetan, demokrazian eta zuzenbide-estatuan. Ikuspegi horren funtsezko alderdietako bat da sortutako kaltearen eta diskriminazioaren aurkako borroka aktiboa, pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatuz.

Funtsezkoa da harrera-politikek ikuspegi hori sakon eta eraginkortasunez txertatzea. Horregatik, ezinbestekoa da haren garrantzia azpimarratzea³⁰, kultura-aniztasunaren kudeaketa-eredu bat dela ulertuta, kultura-pluralismoaren paradigmaren barruan kokatzen dena, hau da, fenomeno hori positibotzat jotzen da, aitorpena merezi du eta ezin daiteke diskriminazio-arrazoi izan. Kulturartekotasunak garrantzia ematen dio kultura aldetik desberdintasunak dituzten subjektuen edo taldeen arteko elkarreraginari, elkarrizketari, elkartrukeari eta lankidetzari, loturak eta puntu komunak ezartzeko bateratasunak bilatze aldera.

- C. *Ikuspegi komunitarioa.* Garapeneko nazioarteko erakundeen esanetan, erakundeek komunitateekin egin beharreko lana orientatzeko eredu metodologikoa da. Zehatzago esanda, ikuspegi komunitarioa tresna erabilgarria da, esku-hartze sozialeko politikak, programak eta proiektuak diseinatu, ezarri, jarraipena egin eta ebaluatzeko. Ikuspegi komunitarioa aplikatzen bada, erakundeek politika publiko jakin baten hartzaileekin batera lan egiteko beharra onartzen da, hartzaile horiei hainbat gaitasun, trebetasun eta baliabide aitortuz, talde horrek bere helburuak lor ditzan. Ikuspegi hori aplikatzeko, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan, besteak beste, ezaugarri kulturalak, genero-harremanak, legezko esparrua edo identifikatutako beharrak.

Horrek esan nahi du harrera-politikak gizabanakoei ez ezik, komunitateari ere zuzentzen zaizkiola, esku hartzeko eremu eta subjektu gisa. Ikuspegi hori bat dator harrera definitzeko erabili dugun moduarekin. Ez da EAEko beste politika sektorial batzuetatik kanpoko ikuspegia; izan ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak³¹ berak berariaz identifikatzen du sistemaren orientatzaileetako bat dela.

Jakina, beste edozein eremutan bezala, harrera-politikan ere funtsezko beste bi ikuspegi jaso behar dira:

29 Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/pal11>

30 Interesgarria da RECIk kaleratutako *Repensar la Acogida desde la perspectiva intercultural* argitalpena. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/kSDQF>

31 Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/0km07>

- I. *Genero-ikuspegia*. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen³² 3.5 artikulua ezartzen du botere publikoek ikuspegi hori integratuko dutela beren politika eta ekintza guztietan. Ildo horretan, tokiko harrera-politikak ez dira salbuespen. Ikuspegi hori honela definitzen da: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

Ikuspegi hori immigrazio-politiketan txertatzea nazioarteko hainbat tresnatan ere aipatzen da, hala nola Istanbulgo Hitzarmenean (60.3 artikulua)³³, Errefuxiatuentzako eta Migratzaileentzako New Yorkeko Adierazpena (31. paragrafoa)³⁴ edo Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna (7. helburua, c letra)³⁵.

Ikuspuntu hori alderdi zehatzetan txertatzeak berekin dakar emakumeen eta neskatoen harreran dauden premiak berariaz aztertzea, azterketa hori hainbat eremuren arabera gauzatzea eta ekintzek, baliabideek eta zerbitzuek behar horiei erantzuten dietela ziurtatzea.

- II. *Ikuspuntu interseksionala*. Berriz ere, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (3.1.c artikulua)³⁶ ezartzen du botere publikoek ikuspegi interseksionala sustatu behar dutela, hau da, desberdintasun-ardatz anitzek —ekonomikoak, politikoak, kulturalak³⁷— testuinguru espezifiko batean bat egiten dutenean sortzen diren ondorio konplexu eta askotarikoak

32 Zehazki, ikus 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/ExoHT>

33 Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta borrokatzeko. 60.3 artikulua: alderdiek behar diren legegintza- edo bestelako neurriak hartuko dituzte, generoarekiko sentikorrek diren harrera-prozedurak eta asilo-eskatzaileei laguntzeko zerbitzuak garatzeko, bai eta generoan oinarritutako jarraibideak eta generoarekiko sentikorrek diren asilo-prozedurak garatzeko ere, errefuxiatu-estatutua lortzeari eta nazioarteko babes-eskaerari buruzkoak barne. Hemen eskuragarri: <https://rm.coe.int/1680462543>

34 Errefuxiatuentzako eta Migratzaileentzako New Yorkeko Adierazpena. 31. paragrafoa: errefuxiatuen eta migratzaileen mugimendu handiei ematen dizkiegun erantzunetan genero-ikuspegia txertatzen dela ziurtatuko dugu, baita generoen arteko berdintasuna eta emakume eta neskato guztien ahalduntzea sustatzen direla, eta emakumeen eta neskatoen giza eskubideak erabat errespetatzen eta babesten direla ere. Ahalik eta gehien borrokatuko dugu sexu-indarkeriaren eta generoan oinarritutako indarkeriaren aurka. Sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zerbitzuetarako sarbidea erraztuko dugu. Emakume eta neskato errefuxiatu eta migratzaileen aurkako bereizkeria modu anitz eta elkarri lotuei aurre egingo diegu. Aldi berean, emakumeek errefuxiatuen eta migratzaileen komunitateetan egiten duten ekarpen garrantzitsua eta lidergoa aitortuta, tokiko konponbideak eta aukerak formulatzen bete-betean, modu emankorrean eta maila berean parte har dezaten bermatzeko lan egingo dugu. Kontuan hartuko ditugu emakumeen, haurren eta gizonen premia, zaugarritasun eta gaitasun desberdinak. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/Xwu00>

35 Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna. 7. helburua, c letra: genero-ikuspegia duten migrazio-politikak egitea, emakume eta haur migratzaileen premia eta zaugarritasun bereziei erantzuteko, adibidez, asistentzia, asistentzia sanitarioa eta aholkularitza psikologikoko eta bestelako aholkularitza-zerbitzuen bidez, eta justiziara eta errekurtsio-bide eraginkorretara sarbidea emanez, bereziki sexu- eta generoan oinarritutako indarkeria, abusu eta esplotazio kasuetan. Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/fYaoS>

36 Id. 32.

37 Aipatutako legearen arabera: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

aztertu behar dituztela, « identitate gainjarriak eta interseksionatuak sortuz, bai eta elkarri lotutako eta askotariko botere- eta zapalkuntza-egoera eta -ardatzak ere».

Zapalkuntza/pribilegio ardatzetik haratago, bereziki interesatzen zaigu interseksionalitatea analisirako, lan juridikorako eta politikak egiteko tresna gisa ulertzea, eskubideak eta aukerak eskuratzeko diskriminazioari heltzen baitio. Horrela, migratuei zuzendutako harrera-politiken kasuan, ezinbestekoa da, besteak beste, sexu/generoa, arrazializazioa edo klasea gurutzatzean sortzen diren errealitate partikularrei arreta ematea.

Amaitzeko, garrantzitsua da agerian uztea ez direla ikuspegi eta ikuspuntu kontrajarriak. Aitzitik, ikus daitekeenez, elkar osatzen dute eta gainjarriak dira. Harrera-politikak diseinatzeko multzo koherente eta orientatzaile bat osatzen dute, betiere abiapuntutzat hartuta politika horiek erdigunean jarri behar dituztela gure herri eta hirietara iristen diren pertsonen beharrak eta migratuen autonomia izan behar dutela helburu.

3.2. Harrera politika sistemiko eta integral baten barruan

Azkenaldian, gora egin dute diskurtso politiko xenofoboek eta gorroto-delituek, eta ia gizarte bat bera ere ez dago halakorik izatetik at. EAEkoa ere ez. Eztabaida soziologiko eta politologiko sakonetatik haratago, nolabaiteko adostasuna dago elementu erabat zatitzaile eta kaltegarri horien oinarri diren zenbait palanka direla politikarekiko desatxikimendua eta gizarte-sektore jakin batzuen biktimismoa. Biktimismoan jausten dira bertako hiritarretako batzuk, beste jatorri batzuetako pertsonen etorreraren aurrean babesgabe sentitzen direlako.

Harrerako (eta gizarteratzeko) tokiko politikak diseinatzerakoan, garrantzitsua da politika horiek gizarte osoaren ongizatera bideratutako politika publikoen osotasun zabalago eta osoago baten parte izatea. Said El Kadaouiren hitzetan, ikuspegi sistemiko bat hartu behar da, «dagoeneko daudenak zaintzen dituenak», harrera-eta immigrazio-politikak «haien ongizaterako inbertsio gisa ere» uler daitezela³⁸. Horrelako politikak ezin dira uharteak izan, ezta naufrago talde bati bakarrik zuzendu ere. Zentzu horretan, garrantzitsua iruditzen zaigu Gordon Allportek³⁹ kulturarteko harremanari buruz egindako ohararazpena gogoraraztea. Imanol Zuberoren testu honen bidez egingo dugu⁴⁰:

[...] kulturarteko harremanak ondorio positiboak izan ditzan taldeen arteko harremanetan eta, bereziki, aurreiritziak gainditu ahal izateko, harreman hori baldintza jakin batzuetan gertatu behar da: tartean dauden subjektuen edo eragileen arteko estatus-berdintasuna, jomuga edo helburu komunen bat, taldearteko lankidetzeta eta erakundeen laguntza (agintaritzak, legeak edo ohiturak). Baldintza horiek egon ezean, pertsonak baliabide eskasengatik lehiatu behar dutenean edo erakundeek immigrazioaren aurkako diskurtsoak bultzatzen edo baimentzen dituztenean, gatazka egongo da.

38 Euskal Autonomia Erkidegoko Immigrazioari eta Integrazioari buruzko XII. Jardunaldietako hitzaldia. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/tyXUQ> 21:00 minututik aurrera.

39 *La naturaleza del prejuicio* (1971). Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/xYLSH>

40 «Desamparo, populismo y xenofobia» testutik ateratakoa, *Revista del Tercer Sector* aldizkariaren 31. zenbakian, III. lauhilekoan (2015). Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/JYrQx>

Bai esplizituki, bai inplizituki, baldintza horiei erantzuna emateko ikuspegiak, dimentsioak eta proposamenak azalduz joan gara dokumentu honetan. Dena den, gogoan izan behar dugu oso garrantzitsua dela horiek integratzea harrerako eta integrazioko tokiko politikak diseinatzean eta gauzatzean.

3.3. Harreraren dimentsioak eta eremuak

Harrera-politikek zer dimentsio edo eremutan eragin behar duten identifikatzean, azalduko ikuspegiekin bat etorritik, irizten diogu baliagarria dela herritartasunari buruz proposatzen genuen definiziora itzultzea. Bertan, hiru eragin-eremu handi identifikatzen dituzten hiru elementu handi bereiz daitezke:

- A. *Administrazio- eta lege-dimentsioa*. Ildo horretatik, funtsezko lau alderdi daude: atzerriartasun-egoera bera, erroldatzea, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Lehenengoari dagokionez, erregulartasuna bultzatzeko informazioa eta aholkularitza eman behar da; bigarrena, oinarrizko zerbitzu askotarako sarbidea ematen duen funtsezko elementua da; hirugarrenean, herritar berriek beren eskubideak eta betebeharrak modu eraginkorrean gauzatzen dituztela ziurtatu behar da; eta, laugarrenean, sexuan eta generoan oinarritutako desberdinkeriarri arreta jarri behar zaio.
- B. *Partaidetza-dimentsioa: ekonomikoa, soziala edo politikoa*. Ziurrenik, dimentsio horretan, harrera- eta integrazio-prozesuaren azken emaitzan pisurik handiena edo, gutxienez, erabakigarriena dute migratuaren egiturazko kokapena baldintzatzen duten dinamika ekonomiko eta laboralek. Era berean, gizarte zibilak eta herritarrek funtsezko zeregina dute horien onarpenean.

Partaidetzaren ikuspegitik proposatzen da, baina horrek ez du alde batera uzten eskubideen osagai argia, funtsean eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturelez ari baikara.

- C. *Kidetasun-dimentsioa*. Esan bezala, herritartasuna identitate zibiko komuna izatea ere bada, hots, komunitate politiko berekoa izatea. Gure ustez, interesgarria da ideia hori kulturarteko ikuspegitik garatzea, hau da, hainbat kultura-ezagutza balioesten dituen ikuspegitik, kultura praktika dinamiko eta elkarrizketarako praktika gisa interpretatzen duenetik, eta horiek berdintasun-maila batean jartzen dituenetik, hots, eskema asimilazionistak eta baztertzaileak errepikatzen ez dituen ikuspegitik.

Identitatearen kontzeptu esentzialista atzean uztea proposatzen dugu⁴¹, eta Avtar Brahrek proposatutako identifikazioaren nozioa: «ez du giza esperientziaren aniztasuna ezabatzen; aitzitik, partikularra dena unibertsala denaren barruan hautemateko gaitzen gaitu, eta unibertsala dena partikularraren barruan hautemateko». Planteamendu hori baliagarria

41 Andrea Ruizen «Los repliegues desacertados de las políticas de la identidad y las dificultades de imaginar lo común» lanetik abiatuta, CEIPAZen 2021-2022 urtekarian argitaratua. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/NJyFz>

da tokiko eta EAEko kultur ezagutzen eta herritar berriek dakartzatenean inguruan hausnartzeko.

Hori horrela izanik, erraztu egiten da bi norabidetan balio partekatua sortzen dituzten kulturartekotasun-prozesuak garatzea; esate baterako, Amin Maaloufen proposamen aberasgarriak⁴² eta gisakoak naturalizatzea, non herritarrek elkarren artean lehiatzen ez diren identifikazio kultural eta nazional ugari baitituzte. Nolanahi ere, asimilazio-idea sotilak edo ez hain sotilak baztertu behar ditugu. Horien arabera, lurraldeko egoiliar guztiek harrera-komunitatearekin bat egin beharko lukete eta harekiko leialak izan beharko lukete, edo identifikazio konpentsatzaileak izan beharko lituzkete, harrera-komunitatean erabateko onarpena lortzeko.

Azken batean, harrera-politikak eremu edo sektore anitzekoak dira, hau da, udal-eremu guztiak inplikatuak dituzte, neurri handiagoan edo txikiagoan, nahiz eta sustapenez eta koordinazioaz migrazioen arloan eskumena duen eremua arduratu.

Era berean, sektore-aniztasun horrek inplikaturako hainbat eragileri eragiten die. Erakunde-eremukoei zein gizartekoei. Horrek erakunde-arloaren edo toki-arloaren garrantzia erlatibizatzen arriskua sortzen du, eta, horren aurrean, funtsezkoa da eremu horretan erantzukizun publikoa hartzearen elementu berritzaile hori berrestea. Izan ere, aukera-berdintasunaren ikuspegitik, harrera-politikak ekimen pribatuei lagatzeak bereziki eragingo die baliabide ekonomiko edo erlazional gutxiago dituzten migratuei, nahiz eta alderdi publikoa ez izan baliabide bakarra eta ezin dituen bete harreraren behar guztiak.

3.4. Erakundearteko koordinazioa eta lankidetzaren publiko-soziala

Jada aipatu dugu, baina funtsezkoa da berriaz garatzea. Eremu horretako tokiko eskumena Eusko Jaurlaritzarekiko koordinazioaren eta gizarte-sarearekiko lankidetzaren ikuspegitik planteatzen da.

Esparru autonomikoarekiko koordinazioak, zehazki, hainbat alderdi dakartza berekin. Oinarrizko batzuk aipatzen:

- Tokiko jarduketak Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planarekin edo Migrazioarako Euskal Itun Sozialarekin eta halako tresnekin bateratzea.
- Zerbitzuak ematen laguntzea (esaterako, Aholku Sarea⁴³ edo Eraberean tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren EAEko sarea⁴⁴).
- Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiaren ustiapen estatistikoetarako sarbidea.
- Prestakuntza-, sentsibilizazio-, bitartekaritza- eta aholkularitza-baliabideak aprobetxatzea, Biltzen-Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuaren bitartez.

Toki- eta autonomia-administrazioaren arteko koordinazio horretaz gain, tokiko harrera-politikek udalerraren barneko koordinazioa behar dute, hau da, udaleko

42 Adibidez, *Identidades asesinas*. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/u6wW2>

43 Informazio gehiago hemen: <https://labur.eus/mQ9IC>

44 Informazio gehiago hemen: <https://labur.eus/Qdiro>

hainbat arlo eta zerbitzuren artekoa: herritarren arreta, gizarte-zerbitzuak, alkatetza, kultura eta euskara...

Lankidetzaren publiko-sozialari dagokionez, alegia, botere publikoen eta hirugarren sektore sozialeko erakundeen arteko lanari dagokionez, EAEko administrazioaren ohiko ereduaren dela gogoratzeaz gain, nabarmentzekoa da atzeritar jatorriko edo migratuek bere gidatutako edo osatutako elkarte eta erakundeek arlo horretan egin dezaketen ekarpen espezifikoak.

Ilido horretan, 6/2016 Legearen⁴⁵ esparruari esker, erakunde horiek zerbitzua emateko funtzio hutsak betetzeaz gain, hornidura-funtzioak ere betetzen dituztela ziurtatzen da, 12.1 artikulua dioen bezala. Horrek esan nahi du gizarte-erakundeek haien diseinuan, prestazioan, ebaluazioan eta hobekuntzan eragiten dutela. Izan ere, erantzukizun publikoko zerbitzu gisa finkatu aurretik, erakunde horiek, askotan, era horretako zerbitzuak ematen dituzte, esplizituki edo inplizituki, sistematikoki edo unean-unean.

Harreraren kasuan, hori erraz egiazta daiteke, baina esperientzia eta ezagutza aitortzeaz gain, hartzaileek bere ematen dioten balioa dago. Hainbat udalerritan egindako ebaluazioetan, migratuek gehien baloratzen duten elementuetako bat da.

Horrela, bada, migratuek integratutako edo bultzatutako gizarte-sare hori, batzuetan informala edo komunitarioa, tokiko harrera-politikak diseinatu eta/edo egiten inplikatzeko gomendatzen da. Lankidetzan jardun litezkeen hirugarren sektore sozialeko erakundeen jarduketaren eremuaren ikuspegitik, gizarteratze-erakundeek funtsezko zeregina dute, baina baita beste batzuek ere, hala nola emakumeen elkarteek eta/edo elkarte feministek, hezkuntza ez-formaleko elkarteek eta abarrek. Gomendio hori guztiz koherentea da ikuspegi komunitarioarekin eta udalerritan batzuetan politika horiek identifikatzeko erabiltzen diren eskakizunekin.

3.5. Zerbitzu espezifikoaren arteko oreka eta zerbitzu orokorren egokitzapena

Immigrazio-politikan eztabaida sortu ohi duen gaietako bat premia espezifikoari erantzuteko baliabide eta zerbitzu esklusiboak sortzearen egokitasuna da. Oro har, kulturartekotasunetik abiatuta, berdintasunaren eta desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioetan oinarritutako oreka bilatzea da erantzuna. Beti saiatu behar da herritar guztientzako zerbitzu orokorrek erantzun diezaieten premia horiei, eta, horretarako, zenbait gaitasun zehatz hartu behar dituzte, alegia, kulturartekoak.

Aurrekoaren osagarri, eta desberdintasunarekiko errespetua artikulatuz, premia espezifikoak denean eta arreta ematea herritarrentzako zerbitzu orokorrei ez dagokienez, egokia da baliabide edo zerbitzu espezifiko bat sortzea. Bigarren eztabaida baliabide espezifiko horietarako sarbidearekin dago lotuta. Zerbitzu orokorretatik bideratzea gomendatzen da, hala nola herritarren arretarako zerbitzuetatik edo erroldatze-bulegotik.

Eztabaida hori areagotu egin da udalerritan batzuetan harrerarako informazio- eta orientazio-zerbitzuak sortu direlako. Kasu batzuetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eman behar duela ulertzen da, eta beste batzuetan, berriz, izaera bereizi propioa izateko bezain prestazio berezia dela. Are gehiago, informazio-zerbitzu

⁴⁵ Id. 20.

horien edukia lehendik dauden zerbitzu publikoen sistema arrunten aurrekoa dela. Gaiari buruzko posizionamendutik harago, harrera-fase horretako informazio- eta arreta-premia modu eraginkorrean konpontzea da garrantzitsuena, modu batera edo bestera.

Hala ere, kasu batzuetan, atzerritar jatorriko pertsonak ez estigmatizatzeko asmo onez, udalerrira iritsi berri diren pertsona guztientzat baliabideak edo zerbitzuak sortzen dira, horiek EAEko, Estatuko edo Europako beste toki batetik iritsi diren kontuan izan gabe. Eta egia bada ere harrera bizileku berri batera iristen den pertsona ororen premia orokorra dela, premia hori ez da homogenea. Egiaz, atzerritar jatorriko pertsonak dute premia larria. Gaur egun, harrera-politikak, definizioz, jatorri migratua edo atzerritarra duten pertsonentzat baino ez dira izan behar.

Izan ere, harreran laguntza eta babesa jasotzeko beharra ere ez da homogenea atzerritarren eta etorkinen kolektiboan. Pertsona batzuek kultura-desberdintasun txikiagoak nabaritutako dituzte; beste batzuek, aldiz, kapital sozial edo erlazional txikiagoa dute, ez dute harremanak izateko herrikide-komunitaterik edo, edozein arrazoi edo inguruabar dela eta, harreran informazio, orientazio eta laguntza gehiago behar dute.

Alde horretatik, funtsezkoa da jatorri atzerritarreko edo migratuko pertsonen multzoari buruzko edozein ideia homogeneizatzaileekin haustea, baina, aldi berean, harrera-politikak ahalik eta uniformeena izan behar du erkidegoko lurralde osoan, eta EAERA bizitzera datorren pertsona orok harrera-estandar bera izango duela bermatu behar du.

3.6. Kulturarteko gaitasunak harreran

Migrazioaren fenomenoari eta herritar berri gisa komunitatean sartzeari dagokionez, ezinbestekoa da kultura-ezagutza desberdinak dituzten pertsonen arteko elkarriketa egongo dela kontuan hartzea. Hau da, kultura-aniztasuna kudeatu beharko dugu, zeina handia eta gero eta handiagoa baita. Eta kudeatuko badute, hainbat gaitasun garatu behar dituzte erakundeek, gizarte-eragileek eta zerbitzu publikoetako teknikariek.

Kultura-aniztasunaz hitz egiten dugunean⁴⁶, eremu geografiko berean bizi diren pertsonen eta taldeen praktika sozial, balio, sinesmen, pentsamendu, hizkuntza edo identifikazio etniko, kultural edo nazionalen egiten diegu erreferentzia; horiek ezaugarritzen eta desberdintzen dituzte.

UNESCOren⁴⁷ arabera, ondare komuna da, beharrezkoa gizakiarentzat, errespetua merezi du eta haren defentsa agindu etikoa da. Berariaz adierazten du giza eskubideen osotasun zatiezinen parte dela. Alde horretatik, ezin da kultura-aniztasuna aipatu nazioarteko zuzenbideak bermatzen dituen giza eskubideak urratzeko⁴⁸, ezta eskubide horien irismena mugatzeko ere. Era berean, garrantzitsua

46 CEAR Euskadiren Asiloari buruzko hiztegia. Hemen dago ikusgai: <https://diccionario.cear-euskadi.org/eu/>

47 Kultura-aniztasunari buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/vsllb>

48 Francesc Carbonellek oso modu didaktikoan aipatu ditu horri buruzko zenbait gai (errespetuaren mugak, folklorismoa...) «Decálogo para una educación intercultural» artikuluan. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/Xxtje>

da kultura-aniztasuna aipatzearen beste arrisku bat azpimarratzea: desberdinkeria inplizituki justifikatzeko erabiltzea.

Hala ere, aurretik esandakoarekin batera, aniztasunaren ideia ez esentzializatzea proposatzen dugu, eta, horretarako, baliagarria da argitzea *bestearen* desberdintasunak subjektibotasunaren eta, beraz, imajinatuaren osagai nabarmena duela. Horrela, hautemandako distantzia kulturala eraikuntza soziala da, eta horren araberakoa izango da gizarte gisa immigrazioaren fenomenoaren aurrean hartzen dugun jarrera: elkarrizketa/harrera, isolamendua/bazterketa edo arbuioa/kanporatzea⁴⁹.

Bidegurutze horretan, kultura-aniztasuna kudeatzeko, kulturartekotasuna ezarri dugu EAEn duela hamarkada batzuetatik, eta horren azken helburua kulturen arteko bizikidetzatza da. Hori honela definitzen da: «kultur ezagutza desberdinak dituzten pertsonen arteko eguneroko bizitza da, non elkar eragiten baitute, harreman sozialak eta elkartrukeak, hurbilketak eta abar sortuz, kultura partekatu berri bat eraikitze bidean, baina horrek ez du esan nahi jatorrizko identitateak ezabatu behar direnik, nahiz eta horiek eraldatzeko eta aberasteko aukera izan»⁵⁰.

Hasieran esan bezala, kultura-aniztasunaren kudeaketa kulturen arteko bizikidetzarantz bideratzea nahi badugu, aldaketak, moldaketak eta egokitzapenak egin beharko ditugu erakundeen, gizarte-eragileen eta teknikarien funtzionamenduan. Elkar hobeto ulertzeko ikuspegiak zabaltzeak ez du inoiz gutxietsi behar berdintze sozialeko prozesuen garrantzi zentrala. Hau da, aniztasuna ezin da aitzakia izan desberdinkeriarri ez heltzeko edo desberdinkeria justifikatzeko. Aldaketa-prozesu horren bidez, beste kultura-praktika batzuk dituzten pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzen saiatuko gara. Eta horretarako, funtsean, hau egin beharko dugu:

- Zerbitzu publikoen ohiko funtzionamendua errealitate pluralago batera egokitzea. Gure ustez, prozesu mota hori gehiago lotzen da integrazio-politikekin, alegia, harreraren ondorengo faseekin.
- Harrera-fasean bereziki garrantzitsua den kulturarteko gaitasunak garatzea erakundeetako langileen eta gizarte-eragileen artean⁵¹.

Kulturarteko gaitasunak dira kultura-praktika desberdinak dituzten pertsonekin modu arrakastatsuan, errespetuz eta eraginkortasunez elkarrengaitzeko gaitasuna, egoera eta testuinguru ugarritan. Orduan, trebetasun espezifikoaren konbinazio bat da, hain zuzen, honako hauena:

- Norberaren kulturari buruz gogoeta egiteko gaitasuna, gure eurozentrismoa zalantzan jartzea ahalbidetuko duen ikuspegi kritiko batetik.
- Ezberdintasunarekiko jarrera positiboak.
- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazio-trebetasuna.

49 Ideia horietan sakontzeko, Amaia Izaola eta Imanol Zuberoren *La cuestión del otro: forasteros, extranjeros, extraños y monstruos* irakurtzea gomendatzen dugu. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/sxQjP>

50 Carlos Giménez Romero.

51 Eduki horietan sakontzeko, irakurri *Competencias interculturales para cargos técnicos y políticos de la administración local* dokumentua. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/v6nLf>

Era horretako elkarrekintzetan sartzen diren elementuak identifikatzeko, nabarmendu behar da elkarriketan ez dagoela soilik kultur ezagutza bakarra (migratuarena); bi edo gehiago daude, baita bertakoarena ere. Halaber, desberdintasunak eta zailtasunak ezin zaizkio kulturari leporatu. Praktika eta prozesu sozialak irakurtzeko testuingurua da kultura.

Ikusten ari garenez, kulturarteko gaitasun horiek garatzeak garrantzia handia du harreraren eta kultura-aniztasunaren kudeaketaren esparruan. Administrazio publikoen eremuan duen ezinbesteko aplikazioaz gain, garrantzitsua da gizarte-eragileek eta herritarrek oro har egiten duten lanean ere. Beraz, harrera-politiketan erakundeek, eragileek eta herritarrek horrelako eskumenak eskuratu ahal izateko ekintzak sartu behar dira⁵².

3.7. Euskararen eta gaztelaniaren zeregina harreran

Said El Kadaoui⁵³ zuzen azpimarratu duenez, migratzaileek mahai gainean jartzen dituzte helmugako herrialdeko egiturazko gaiak, haiekin zerikusirik ez dutenak. Ez haiei eragiten ez dietelako edo arrotzak izango zaizkielako, aurrerago azalduko dugun bezala, baizik eta arazo horiek iritsi aurretik hor zeudelako, hau da, immigrazioak ispilu-lana egiten du eta gure gatazka ebatzizgabeen errealitatea erakusten digu⁵⁴. Zehazki, EAEko gizartearen hizkuntza-aniztasunari dagokionez, gure diglosiaren berezitasunen aurrean jartzen gaitu, hots, gure bi hizkuntzen (euskara eta gaztelania) erabilera-desberdintasunen aurrean, eremu instituzional-administratiboan eta sozialen artean, bai eta lurralde-eremuen artean ere (auzoen, udalerrien eta lurralde historikoen artean).

Bi hizkuntzen arteko bizikidetzak hori ez dago gatazkatik libre, eta hori konpontzeko, hizkuntza-normalizaziorako politika bat ezarri da —adostasun sozial handiarekin—. Horren bidez, euskararekiko ekintza positiboak sustatzen dira, eta, hala, hizkuntza-eskubideak gauzatzeko esparru bat eskaintzen.

Gainerako politika publikoekin bezala, ikusi beharko da nola egokitu behar den hizkuntza-politika migrazioen eta gero eta handiagoa den hizkuntza-aniztasunaren fenomenora, EAEko gizartearen ezaugarri den hizkuntza-aniztasunera gehitzen zaio eta. Politika mota horiek garatzen dituzten toki-erakundeena ere bada egokitzeko behar hori, modu heterogeneoan garatzen dituztenez. Neurri handi batean, unean-unean bultzatzen dituenaren konpromiso politikoagatik eta haien erabileraren tokiko errealitatei erantzuteko.

Testuinguru horretan, eta Saidek proposatzen duen ideia itzuliz, guztiz bidegabea da diglosia horren erantzukizuna EAERA beste herrialde batzuetatik iristen diren pertsonen leporatzea edo diglosia konpontzeko erantzukizuna haien gain jartzea, bertako biztanleriaren zati handi batek aintzat hartzen ez dituen hainbat praktika inposatuz.

Migratuak hartzeko eta gizarteratzeko prozesuetan, hizkuntza beti da funtsezko elementua. Horrela, beste alderdi batzuekin batera, herritartasun-eskubideak eta -betebeharrak gauzatzeko eta gizarte hartzailearen parte gisa ikusiak izateko beste

52 Biltzenek, alegia, Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuak, gai horri buruzko ikastaro monografikoak jasotzen ditu bere prestakuntza-katalogoan.

53 Euskal Autonomia Erkidegoko Immigrazioari eta Integrazioari buruzko XII. Jardunaldietako hitzaldia. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/tyXUQ> 23:00 minututik aurrera.

54 Interesgarria da Xabier Aierdiren eta Erramun Osaren «Immigrazio berria, hizkuntza arazo berririk?» artikulua aipatzea. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/nL2H3>

giltza garrantzitsu bat da. Ildo horretan, gauzatutako esperientzietatik abiatuta, zenbait alderdi hartu behar dira kontuan tokiko harrera-politikak diseinatzean:

- Hizkuntza-politikak harrera-politiken parte izan behar du, enpleguko, gizarteratzeko, osasuneko, hezkuntzako edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikek bezalaxe. Eta aipatutako gainerako politikak legez, kulturartekotasunaz blaitu behar da, berariaz saihestu edozein tentazio asimilazionista edo baztertzailetan erortzea, eta migrazio-fenomenoaren aurrean egokitzapen eta moldaketa egokiak egin behar dira.
- Migratuei gure gizartean bi hizkuntza daudela jakinarazi behar zaie, euskararen erabilerak zer-nolako errealitatea duen tokiko ingurunean, euskara jakiteak zer-nolako garrantzia duen gizartean moldatzeko eta enplegua lortzeko edo zer presentzia duen hezkuntza-sisteman. Hasiera-hasieratik hartu behar dute beren bizitzaren zati izango den elementu gisa.
- Euskarak ez du oztopo bat gehiago izan behar integrazio-prozesuan. Aitzitik, integratzearako elementu lagungarria izan behar du, ahal den neurrian eta arrazoizkoa den heinean. Azken helburua migratzaileengan euskararekiko sentimendu positiboa sortzea da, ezaugarri eta egoera pertsonalen arabera maila desberdinetan ikas dezaten.
- Egokia da toki-erakundeak euskalduntzeko helburuak eta itxaropenak migratu bakoitzaren ezaugarrietara eta egoerara egokitzea, haien adina, jatorriko hezkuntza-maila (alfabetatzea eta norberaren hizkuntza irakurri eta idazteko gaitasuna), administrazio-egoera, jatorri geografikoa eta abar aintzat izanda. Ulertu behar da balitekeela haien lehentasunak (kasu batzuetan, iraupena eta finkapena) ez izatea bateragarriak hizkuntza-normalizazioarekin. Horren harira, beste oztopo bat ez dela ziurtatzeko eta lotura positibo bat eraikitzeko, hizkuntza erabiltzeari eta ikasteari buruz hartzen dituzten erabakiak errespetatu behar dira.
- Dauden programak egokitzea eta beste programa berri batzuk garatzea, errealitate berri hori aintzat hartu eta iritsi berri diren helduek eta azpi-helduek —hala nola haurrek edo gaizki deituriko bigarren belaunaldiek— euskara ikasteari (edozein mailatan dela ere) erantzun ahal izateko (indargarriekin, udalerriko bertako biztanleek dituzten baldintza berdinetan euskara ikastea lor dezaten). Udal euskaltegia edo ikasteko beste baliabide batzuk badaude, metodologia soziolinguistikoko berri eraginkorragoak lantzea egokia izan liteke. Horretarako, ezinbestekoa da biztanleria migratzaile osoak hezkuntza-eremu formalean, ez-formalean eta informalean parte hartzea.
- Bertako gizartearen diskurtsoak eta jarrerak lantzea; estereotipoak eta aurreiritziak saihestea, eta hizkuntza-normalizazioan aurrera egiteko zailtasunen erantzukizuna edo errua atzerritar jatorriko biztanleei egotzen dieten balio-judizioak aktiboki deslegitimatzea.

Gogoeta horietako askok, funtsean, ikuspegi edo esparru aldaketa dakarte, hots, immigrazioa euskararentzat arazo delako ideiatik euskara immigrazioaren fenomenora egokitzera igaro behar dugu. Aldaketa hori gertatu da jada beste eremu sozial, sektorial eta politiko batzuetan, eta, naturaltasunez, hizkuntza-normalizazioko politiketan ere gertatu behar du.

Egokitzapen hori, kulturartekotasunetik planteatzen denean, bi norabidekoa da nahitaez. Bertako biztanleek eta migratzaileek aldaketak, moldaketak, egokitzapenak eta doikuntzak egin behar dituzte beren itzaropenei, interesei eta helburuei dagokienez, bien mesedetan, eta, aldi berean, berdintasun- eta desberdintasun-printzipioak errespetatu behar dituzte. Horrela, testuaren hasieran aurkeztu genuen herritartasunaren nozioari (eskubide eta betebeharren subjektuak, komunitate politiko bereko kide berdinak eta identitate zibiko amankomuna dugunak) eta kultura partekatu berri bat izateko asmoari helduz (ez ditu kulturak ezabatzen, baina lehendik zeudenak eraldatzen ditu), euskara, gaztelania bezala, kultura horren parte izatea da helburua.

Azkenik, orientabide edo gogoeta horien xedea ez da hizkuntza-politika immigrazioaren kulturarteko ikuspegi batetik lantzeko esparru orokor edo bakarra izatea. Kontuan hartzeko eta eztabaidatzeko oinarrizko elementuak baino ez dira.

4. Esperientziak eta joerak harrera-politikan

Tokiko harrera-politika bat ezartzeko modu bakarra ez dagoen arren, hainbat udal-esperientziatik abiatuta, politika hori zehaztu dezaketen eta behar duten zenbait orientabide, jarraibide edo gida daude. Urrunago joan gabe, testu hau azken horren adibide edo ariketa da.

Horrela, EAEko hainbat udalerrri esperientzia desberdinak garatzen ari dira, kasu askotan, identifikatzen dituzten beharretatik abiatuta, baina elementu berdin asko dituzte guztiek. Agian, etorkizun hurbilean harrera-politiken tipologia desberdinak argi eta garbi zehaztu litezke; hala ere, une honetan, esperientzia horiek bereizteko alderdi orokor batzuk baino ezin ditugu aurreratu.

Alderdi orokor horiek hainbat ardatzetan sailka ditzakegu, eta ardatz horiek esperientzia horietako bakoitza kokatzeko matrize konplexu bat marrazten dute:

- Integraltasun handiagoa edo txikiagoa. Sektorearen ikuspuntutik hainbat premiari ematen zaien arretari egingo genioke erreferentzia (errolatzea, osasuna, enplegua, etxebizitza, kultura...), bai eta, adibidez, emakumeen edo haurren premia espezifikoiei ere.
- Zerbitzuen, prestazioen eta baliabideen espezifikotasun edo homogeneotasun handiagoa edo txikiagoa. Kasu horretan, harrera-politikek soilik edo lehentasunez migratuei zuzendutako baliabideak eta zerbitzuak sortzen dituzten aztertzen dugu, bai eta zerbitzu eta baliabide horiek prestazio-zorro berezituaz hitz egiteko adinako integrazio-maila duten ere, hau da, jarduketa puntualen edo harrera-politika baten aurrean gauden.
- Garrantzi komunitario handiagoa edo txikiagoa. Testuan zehar azaldu dugun bezala, alderdi komunitarioak zerikusia izango luke, neurri handi batean, gizarte-sareak eta herritarrek baliabideetan, zerbitzuetan eta prestazioetan duten inplikazioarekin.

Dirudienez, esperientzia berrien arabera, hiru ardatz horiei buruzko erantzun gutxi gorabehera antzekoak egon dira. Hona hemen erantzun horiek:

- Harrerarako zerbitzu/prestazio espezifiko berriak sortzea, bai sortu berriak, bai propioak edo beste zerbitzu batzuei lotutakoak, esaterako, herritarrei arreta emateko zerbitzuei edo oinarrizko gizarte-zerbitzuei lotutakoak.

- Baliabide eta zerbitzuen zati bat gizarte-erakundeekin lankidetzan garatzea (migratuei zuzenduak izan ala ez), eta, kasu batzuetan, beste eremu sektorial batzuk uztartzea, adibidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna edo hizkuntza-normalizazioa.
- Gizarte-mentoretzanoinarritutako baliabideak txertatzea, bertako herritarrek zuzenean parte hartzea eskatzen dutenak. Baliabide horiek hainbat alderdiri lotuta egon daitezke: laguntza orokorra, hezkuntza, hizkuntza-gaitasunak, etab.

Nolanahi ere, udalerrri jakin baterako erreferentziarik edo tipologiarik onena, garatu ditugun ikuspegiak, dimentsioak eta ikuspuntuak kontuan hartuta, tokiko eragile instituzionalek eta sozialek, modu kontziente eta informatuan, beren beharretara, baliabideetara eta aukeretara hobeto egokituko dela uste duten harrera-politika izango da.

5. Toki-erakundeen tresnak

Esan dugunez, toki-erakundeek eskumena dute atzerritar jatorriko pertsonak integratzeko politiken kudeaketan —eta politika horiek harrera-politika espezifikoak biltzen dituzte—. Politika horiek Eusko Jaurilaritzarekin koordinatuta eta gizarte-erakundeekin lankidetzan gauzatu behar dira, eta hurrengo urrats gisa, erakunde-eremutik nola ezar daitezkeen edo nola komeni den ezartzea identifikatu behar dugu.

5.1. Tresna motak

Hainbat elementuk osatzen dute harrera, eta, beraz, komenigarria da erakundeen ekintza beste eremu sektorial batzuen antzeko tresnen bidez antolatzen saiatzea, hala nola:

- **Diagnostikoa.** Bai politikak diseinatzeko fase gisa, bai dokumentu batekin zehazten den tresna gisa, udalerrri batzuek harrera-diagnostikoak egiten dituzte. Era berean, modu partzialagoan, ekintzak, protokoloak, planak, zerbitzuak eta harrera-gidak eguneratzeko ere egiten dituzte. Tresna horien bidez, udalerriko migratuei udalerrian integratzeko prozesuei buruzko kontsultak eta galderak egiten zaizkie. Horrela, jakin nahi da zer alderdi iruditu zaien lagungarrien edo oztopagarrien, baita zer sumatu duten faltan ere. Batzuetan, diagnostiko horiek planen eta protokoloen diseinuaren izaera parte-hartzailearen barruan sartzen dira.
- **Plana.** Tresna horren bidez, politika osatzen duten jarduketak identifikatu eta lehenesten dira, eta horietarako egutegia finkatzen da. Harrera-plan espezifikoa izan daiteke, edo ekintza espezifikoaren multzo bat, migrazioari eta kulturartekotasunari buruzko plan zabalago baten barruan. Azken hori da ohikoena. Gizarte-eragileekin batera prestatzen diren dokumentu publikoak dira. Iraupen jakin bat izan ohi du, eta hura betetzen den ebaluatzeko uneak aurreikusi behar ditu. Genero-ikuspegia izan behar du, eta komeni da memoria ekonomiko bat eranstea.
- **Harrera-protokoloa.** Planean jasotako jarduketaren bat edo batzuk antolatzen ditu, eta informazioa ematea, orientatzea eta bideratzea zertan datzan definitzen du, baita horiek nola, noiz eta nork eskainiko dituen ere. Ez du zertan dokumentu publikoa izan, baina ezerk ez du publikoa izatea

eragozten, eta osoko bilkurak onartzea ere gomendagarria izan daiteke. Nolanahi ere, beste erakunde eta gizarte-eragile batzuekiko koordinazioa behar den heinean, partaidetza bidez prestatu behar da, ahal dela. Ez du iraupen jakinik, eta komeni da aldizka berrikustea, hobeto funtzionatzeko egokitzat jotzen diren zuzenketak edo egokitzapenak egite aldera.

- **Harrera-prestazio tekniko eta orientazio-zerbitzua.** Protokoloaren tresnari hertsiki lotuta, eta protokoloaren elementu nagusi gisa, beharrezkoa izaten da prestazio tekniko bat definitzea, zerbitzu publikoak hornitzeko sistema orokorreari buruzko informazioari, orientazioari eta bideratzeari dagokionez. Prestazio horrek, batzuetan, zerbitzu berri bereizi bat eratzen du, eta, beste batzuetan, lehendik dauden beste zerbitzu batzuen bidez egiten da.
- **Harrera-baliabideen gida.** Oinarrizko material horrekin egiten da harrera-prestazio teknikoak, eta baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa biltzen du, dela tokikoak, foralak edo autonomikoak, direla orokorrak herritar guztientzat edo berariazkoak migratuentzat. Nolanahi ere, eskubideen ikuspegiarekin formulatuta egon behar du, eskuragarria izan behar du (irakurteraza eta hainbat hizkuntzatan, euskaraz eta gaztelaniaz gain) eta erakunde kanpoko eragileen eskaintza barne hartu behar du. Publikoa da, eta edukiaren antolamenduak migratuen beharrei erantzun behar die. Adinaren edo sexu/generoaren arabera egokitzapenak egin ahal izatea komeni da.

Gure iritziz, harrera-politika bat ona izan dadin, ez du nahitaez azaldutako tresna gehien edo ekintza gehien bildu behar, baizik eta, ebaluatu ondoren, helburua ondoen bete duela frogatu behar du. Ondorio horren atzean EAEn immigrazioko eta kulturartekotasuneko tokiko politiken 25 urteko esperientzia dago. Uste osoa dugu dokumentuak eta plangintzak ez direla berez helburuak izan behar, tresnak baizik.

5.2. Tokiko harrera-protokoloak

Azken aldian, EAEko udalerrri asko ari dira harrera-protokoloak diseinatzen eta ezartzen. Horien azterketatik eta Biltzenek lantze-prozesuetan emandako laguntzatik abiatuta, tresna horiekin lotutako zenbait alderdi interesgarri identifikatu ditzakegu:

A. Diseinuari dagokionez:

- Kontzeptu-definizio egokia.

Funtsezkoa da harrerari, integrazioari eta horien arteko mendekotasun estuari buruzko kontzeptu argietatik abiatzea. Dokumentu hau erreferentzia ona izan daiteke zentzu horretan.

«Harrera» hitzak baliteke aldi baterako zerbait delako ideia ekartzea burura herritarrei, baita «bertako» pertsonak eskuzabaltasun-egoeran jartzen dituela ere. «Integrazioak», berriz, iraunkorra den eta botere publikoei eta gizarte hartzaileari aldaketak eta egokitzapenak egitea eskatzen dien zerbaitera garamatza.

Ikuspegi horretatik uler daiteke harrera-politiken garapena erakargarriagoa izatea erakundeentzat, integrazio-politiken kaltetan. Hala eta guztiz,

integrazioerik gabeko harrera onkeria da, eta harrera egokirik gabeko integrazioa arazotsuagoa da. Hori dela eta, harreraren eremuko jarduketaren garapenak tokiko politiken esparru zabalago baten parte izan behar du, atzerritar jatorriko pertsonak gizarteratzera bideratua.

- Udalerriko immigrazioaren errealitateak abiatzea.

Hasieratik hitz egin dugu integraltasunaz eta pertsonengan oinarritutako harreraz. Ikuspegi horretatik, funtsezkoa da udalerrian bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen profilak identifikatzea (jatorria, hizkuntzak, sexua, adina, sektore profesionalak...), harrerarako proposatzen diren jarduketaren bidez, haien behar espezifikoetara ahalik eta gehien egokitutako erantzuna eman dakien.

- Politika integraletan kokatzea

Ezin du ekintza isolatua izan, ezta osotasun zabalago batekin, hau da, udalerririk pertsona migratuak integratzeko garatzen dituen politikekin loturarik ez duena ere.

- Partaidetza-prozesu bat garatzea

Horrelako protokoloak diseinatzen eta ezartzen laguntze aldera Biltzenen erabiltzen dugun metodologian —tokiko hainbat errealitateetara egokitu daiteke—, arlo desberdinetako udal-teknikarien, gizarte-erakundearen eta hezkuntza-eragilearen partaidetza hainbat planotan uztartzen saiatzen gara. Partaidetza hori funtsezkoa da eragileek eta herritarrek parte har dezaten eta protokoloak eskubideen eta komunitatearen ikuspegia hartzen duela bermatzeko.

B. Edukiari dagokionez:

- Hiru gune identifikatzea: udala, gizartea eta hezkuntza.

Hernaniko Udalaren proposamena hartu dugu erreferentziatzat. Horren arabera, protokoloak, dimentsio integrala eta komunitarioa izateko, hiru eremutan eragin behar du batez ere: udalean (arlotan guztiak barne), gizartean (hainbat elkarte inplikaturik eremu desberdinetan: euskara, kirola, aisialdia, feminismoa, esku-hartze soziala...) eta hezkuntzan (ikastetxeen zuzendaritza, guraso-elkartea...).

- Itxaropenak doitzea

Atzerritartasuna estatu-mailan araututako gaia da, lege organikoaren mailakoa, eta toki-erakundeek ekintzak garatzeko dituzten aukerak, ezinbestekoak eta potentzial handikoak izan arren, ezin dituzte berez konpondu beren eskumen-eremutik kanpo garatzen diren atzerritar jatorriko pertsonak gizarteratzeko funtsezko alderdiak. Ildo horretan, funtsezkoa da tartean dauden eragile guztiak tokiko harrera-politiken muga horien jakitun izatea, itxaropen irrealak saihesteko.

- Udalerriko baliabideetara egokitzea

Beste edozein arlotan bezala, harrera-politikak udalerriko baliabideetara (materialak eta ez-materialak) dimentsionatzea funtsezkoa da denboran zehar jasagarritasuna bermatzeko.

- Zentzu praktikoa eta operatiboa

Harrera-protokoloa laburbiltzen duen dokumentuak bokazio praktikoa eta operatiboa argia izan behar du. Egunerokoan erreferentzia izan behar duen dokumentua da, esleitutako zereginak nork, noiz eta nola egin behar dituen argi eta garbi jakiteko. Kontua ez da, beraz, hitzaldi teoriko handiak egitea, baizik eta erakunde publikoek eta gizarte-eragileek bere gain hartutako konpromiso batzuk artikulatzea.

5.3. Harrera-prestazio teknika eta orientazio-zerbitzua

Harrerak, dokumentu osoan zehar definitu dugun bezala, hainbat dimentsio, eremu eta gune ditu, eta erantzukizun publikoaren ikuspegitik abiatuta, horiek nola inplementatu ikusten ari gara hainbat tresnaren bidez. Horietako bat, adierazi dugun bezala, iritsi berri diren atzerritar jatorriko pertsonen ingurunea ezagutzeko dituzten berariazko premiei erantzutearekin dago lotuta berariaz.

Premia hori prestazio teknika baten bidez konpondu behar koda, hauda, profesionalen egindako esku-hartze erlazional baten bidez. Esku-hartze horren edukiak zerikusia du informazioa eta orientazioa ematearekin eta herritar guztientzako zerbitzuen sistema orokorretara bideratzearekin.

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren (2018-2020)⁵⁵ esparruan hainbat eragile sozial eta instituzionalek gai horren inguruan egin zuten lanean, harrera-prestazio horrek izan behar litzuzkeen gutxieneko edukietako batzuk identifikatu ziren, hala nola:

- Erroldatzearen izapideari buruzko informazioa
- Administrazio-erregularizaziorako izapideei buruzko informazioa
- EAEko osasun-sistamarako irispidea
- Enplegua lortzea
- EAEko hezkuntza-sistamarako irispidea (hala badagokio)
- EAEko gizarte-zerbitzuen eta diru-sarrerak bermatzeko sistamarako irispidea (hala badagokio)
- Hizkuntzak ikastea: euskara eta gaztelania
- Herritarren eskubide eta betebeharrak buruzko informazioa
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren lege- eta gizarte-esparruari buruzko informazioa
- Haurren babesaren lege- eta gizarte-esparruari buruzko informazioa
- Tituluen homologazioari buruzko informazioa
- Inguruneari eta gizartean parte hartzeko programei buruzko informazioa

Zerbitzu orokorren eta espezifikoaren arteko orekari buruzko 3.5. puntuan aurreratu bezala, prestazio hori lehendik dauden zerbitzuen bidez edo sortu berri diren beste zerbitzu espezifiko batzuen bidez eman daiteke, EAEn gero eta udalerrri gehiago egiten ari diren bezala.

55 Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/sHxeJ>

Badirudi nolabaiteko adostasuna dagoela prestazio hori emateko zerbitzu espezifikoak aukeratzean, toki-mailan baliabideen beharra eta erabilgarritasuna bat datozenean, atzeritar jatorriko pertsonen integrazio-prozesuak hobetzeaz gain, aukera izan daitekeela zerbitzu publikoak emateko sistemen ekintza antolatzeke, koordinatzeke eta efizienteago egiteke.

Nolanahi ere, une honetan, oraindik ez dago erantzun homogeen edo bakar bat harrerarako orientazio-zerbitzu espezifiko horiek emateko moduari buruz, eta toki-erakundeetan duten kokapen sektoriala oso arlo desberdinei dagokie, hala nola gizarte-zerbitzuei, herritarrekiko harremanei, berdintasunari, bizikidetzari eta abarri.

5.4. Beste programa osagarri garrantzitsu batzuk: gizarte-mentoretza

Ikusi dugunez, kulturarteko gaitasunak dimentsio erlazional nabarmena du. Aurreko orrialdeetan, harrera herritartasunari lotutako prozesu gisa aurkeztu dugu, alegia, besteak beste, lotura bat edo identitate zibiko amankomuna izatea da. Era berean, esan dugu kulturartekotasunak elkarreragina, elkarrizketa eta lankidetzaz azpimarratzen dituela kultura aldetik desberdintasunak dituzten eta/edo taldeen artean. Puntu honetan, aipatu ditugun harreman horien guztien helburu bat azaltzen saiatuko gara, besteak beste. Horretarako, harrera-prozesuan alderdi garrantzitsutzat jotzen dugunarekin lotuko dugu: kapital soziala eta, bereziki, gizarte-mentoretza.

Nolabait ere, herritar berriei gizarte-sareetarako sarbidea erraztea (kapital soziala ez dira gizarte-sareak, baina gizarte-sarerik gabe ez dago kapital sozialik) lagungarria izan dakiguke gizarte hartzailearentzako eta migratuentzako harrera-eta gizarteratze-helburuetan aurrera egiteko. Garrantzitsua da adieraztea iritsi berri diren migratuei gizarte-sareetarako sarbidea errazteak berekin dakarrela harremanetan jartzeko aukera ematea, bai bertako pertsonekin, bai jatorri bereko pertsonekin edo hemen finkatutako beste jatorri batzuetako pertsonekin.

Kasu honetan, gizarte-mentoretzaren bidez landu ahal izango dugu da gai hori. Hala, azken urteotan, EAEn garrantzia hartzen ari dira gizarte-mentoretzan oinarritutako proiektuak eta ekimenak. Mentoretza, berez, hainbat espazio geografiko eta kulturaletan eta hainbat garaitan aurki daitezkeen aspaldiko ideia da. Oro har, esperientzian oinarritutako ikaskuntzak transferitzeko laguntza-harremanak dira, eta bizitzako trantsizio-aldiekin lotzen da. Gizarte-eremura ekarrita, honela definitzen da⁵⁶: «gizartean esku hartzeko metodologia bat, borondatez beren burua eskaintzen duten pertsonen arteko harremana sustatzen duena, gizarteratze-prozesuan dagoen beste pertsona bati banakako laguntza emateko».

Harreman mota horiek —beti ikuskatuta eta mentoreari aurretiatzeko prestakuntza emanda—, hainbat egoera eta eremutan aplikatu daitezke: hezkuntzan, enpleguan, hizkuntzen ikaskuntzan eta abarretan, bai eta migratuen harreran ere. Bereziki, egoera oso zaurgarrian daudenekin.

Alderdi komunitarioaren garrantzian eragin nahi duten beste harrera-eredu herrikoi batzuk aipatzen direnean, interesgarria litzateke horiek argiago lotzea kapital sozialaren eta mentoretzaren garapena sustatzen duten jarduketan ezarpenarekin, lehen azaldu bezala.

⁵⁶ Gizarte Mentoretzako koordinatzailearen definizioa hartu dugu. Hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/1AbL2>

Azkenik, genero-ikuspegitik, ezin dugu alde batera utzi emakume gehiagok hartzen dutela parte kapital sozialarekin eta mentoretzarekin lotutako jarduketan eta proiektu mota horietan, gizonen aldean. Kasu zehatz honetatik harago, funtsezkoa da harrera-politikak diseinatzeko unean horrelako dinamikez jabetzea.

6. Harrerarako tokiko baliabide eta zerbitzu posibleak

Zehatzak izateko asmorik gabe, eta harrera-politiketarako proposatutako esparruen edo dimentsioen eskemari jarraituz, toki-erakundeek gizarte-erakundeekin lankidetzan eta Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren baliabideekin koordinatuta egin ditzaketen zenbait ekintza aipatuko ditugu:

6.1. Administrazio- eta lege-dimentsioa

- 1.1.1. Lehen harrerako informazioa: erroldatzea, OTI, eskolatzea...
- 1.1.2. Erroldatzeko jardunbide egokiak
- 1.1.3. Harrerarako orientazio-zerbitzua
- 1.1.4. Aholku sarera bideratzea eta/edo horrekin osatzea
- 1.1.5. Atzerriartasunari, nazionalitateari eta tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko informazio-saioak
- 1.1.6. Genero-harremani, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, genero-indarkeriari eta berdintasunezko maskulinitatei buruzko informazio-saioak
- 1.1.7. Familia berriz elkartzeko laguntza

6.2. Partaidetza-dimentsioa

- 1.1.8. Gizarte-mentoretza (Urretxindorra, Loturak eta beste hainbat)
- 1.1.9. Babes komunitarioko programekiko lotura (Auzolana eta beste hainbat)
- 1.1.10. Matrikulazioko eta eskolako kulturarteko bizikidetzako jardunbide egokiak (Ongi etorri eskolara, Zaldibia-UEMA esperientzia eta beste batzuk)
- 1.1.11. Tituluen homologazioari buruzko informazioa
- 1.1.12. Enplegurako eta lanbide-heziketarako orientazioa (etxeko langileen kasuan, arreta berezia jarriko zaio eskubideen ikuspegia hartzeari)
- 1.1.13. Profesionalen eta teknikarien prestakuntza: kulturarteko gaitasuna, aniztasun soziokulturala kudeatzeko ereduak eta atzerriartasuna
- 1.1.14. Zerbitzu publiko orokorrak egokitzea
- 1.1.15. Tokiko harrera-ekimenak babestea, herritarrenak eta komunitarioak

6.3. Kidetasun-dimentsioa

1.1.16. *Harrera saioak*

1.1.17. Hizkuntzak ikastea: euskara eta gaztelania

1.1.18. Herritarrak sentsibilizatzea

1.1.19. Migraziorako Euskal Itun Sozialari atxikitzea

DIMENTSIOA	EKINTZA	HARRERA-GUNEAK		
		UDALA	GIZARTEA	HEZKUNTZA
Administrazioa eta legea	Lehen harrerari buruzko informazioa	✓	✓	✓
	Erroldatzeko jardunbide egokiak	✓		
	Harrerarako orientazioa	✓	✓	
	Aholku sarera bideratzea	✓	✓	
	Atzerritartasunari eta tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik ezari buruzko informazio-saioak	✓		
	Berdintasunerako informazio-saioak	✓		
	Familia berriz elkartzeko laguntza	✓		
Partaidetza	Gizarte-mentoretza		✓	✓
	Babes komunitarioa	✓	✓	
	Matrikulazioko eta bizikidetzako jardunbide egokiak			✓
	Tituluak homologatzeko informazioa	✓		
	Enplegurako eta lanbide-heziketarako orientazioa		✓	✓
	Profesionalen eta teknikarien prestakuntza	✓	✓	✓
	Zerbitzu publikoak egokitzea	✓		✓
	Herritarren eta komunitatearen ekimenak babestea	✓	✓	
Kidetasuna	Harrera saioak	✓	✓	✓
	Hizkuntzak ikastea	✓	✓	✓
	Herritarrak sentsibilizatzea	✓	✓	✓
	Migraziorako Euskal Itun Sozialari atxikitzea	✓	✓	✓

7. Tokiko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak

- I. **Migrazioa** egungo EAEko gizartean **egiturazkoa** eta egituratzailea dela jabetzea, hainbat alderditan erronka eta aukera izanik.
- II. Benetan aukera bat izan dadin, toki-erakundeek, beren tamaina edo baliabideak edozein direla ere, zeregin erabakigarria dutela jabetzea, immigrazioa eta aniztasun soziokulturala integratzeko eta kudeatzeko **tokiko politikak ezarriz**.
- III. Tokiko politika horiek Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiekin **koordinatuta** ezartzea. Hori guztia hirugarren sektore sozialarekin lankidetzan.
- IV. **Kulturartekotasunaren eta eskubideen ikuspegia hartzea** tokiko politika horietan, arreta berezia jarriz herritartasunari eta zerbitzu publikoetarako sarbideari. Modu berean, genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatu behar ditu.
- V. Integrazio-politiken barruan, **harrera izaera propioa eta garrantzi berezia duen jarduketa multzo gisa identifikatzea**, integrazioaren beraren emaitzan nahiz zerbitzu publikoak hornitzeko sistemetan duen eraginagatik.
- VI. «Harrera» kontzeptua adostea, herritarren artean nahasketak saihesteko, baina baita politika publikoen diseinu egokia bermatzeko ere.
- VII. **Hirugarren sektore sozialaren partaidetza** funtsezko elementutzat hartzea politika horien diseinuan eta ezarpenean, bereziki migratzaileek osatzen duten edo parte hartzen duten sektorearena.
- VIII. Harreraren eremuko toki-politikak beste edozein politika publiko bezala antolatzea, hau da, **diagnostiko, plangintza eta ebaluazio** batean oinarrituta. Horretarako, bereziki garrantzitsua da **harrera-protokoloak** prestatzea, udal-arlo eta gizarte-eragile desberdinek parte hartzen duten prozesuen bidez.
- IX. Harrera-politikak hainbat jarduketa, programa eta baliabidetan zehaztea, tartean, gero eta maizago, errealitatera eta tokiko baliabideetara egokitutako **harrerako udal-zerbitzuetan**.
- X. **Eusko Jaurlaritzak EUDELen eta toki-erakundeen eskura jartzen dituen baliabideen, tresnen eta erreferentzien katalogoari** balioa ematea, integrazioaren eta, bereziki, atzeritar jatorriko pertsonen harreraren arloko politikak garatzeko.

